

## ERREGEEN ADORAZIOKO BERSUAK.

---

AZCOITICO SANTA MARIAN KANTATUAK.\*

---

1.

Eukirik Echian biar dezun Argia  
 Ilunpiān zaude, Jerusalen;  
 Urreratzen zazu kanpotik argia;  
 Esnatu zaite lenbatlen.

2.

Tronpeta, klariñak soñu chit ederrak  
 Aditzen dirade or mendian,  
 Iru gizon datoñ guztiz jakinsuak  
 Musika gozoen armonian.

3.

Izar bat dakarde giatzat aurrian  
 Biderik utz egiñ ez dezaten,  
 Gauza aundiren baten ondoren dabiltza,  
 Ez nabe guztiak engañatzen.

4.

Sartutzen dirade diadarrez itauntzen  
 Jerusalen zure *dichosoa* (?)  
 Nun dezu jaiodana adora dezagun  
 Juduen errege aur gozos.

5.

Errege berria aditu orduko  
 Turbatzen (?) da guztiz Jerusalen,  
 Zergatik guztiak arkitzen ziraden  
 Bildurrak ikaraz Erodes- en.

6.

Mendiak bera artzai bat *kontentus* (?) beterik

---

(\*) D. José Francisco de Aizquibel atribuye la paternidad de estos versos al insigne Conde de Peñasflorida. Ignoramos con qué fundamento.

Bildotz jaio berri bat makillan sarturik  
*Allegatzen* (?) dianian Jesusen aurrera  
 Esaten dio onela umore onian. (?)

7.

¡Ay au *infante* (?) polit parerik gabia,  
 A ma donzella eder zeruko loria,  
 Aita *benerablea* (?) Jakoben semia,  
 Ezin izan diteke gizon bat obia.

8.

Birjiña Amandria, ez deritzat ongi  
 Su utzik lagatzia, tori ollanda bi,  
 Ez dizugu *ofrezitzen* (?) arkumerikan guk,  
 Arkumerik onena zurekin dezu zuk.

9.

Otzak negarrez dago jayo dan aur ori,  
 Lastuen artetikan begira Aitari,  
 Espalchuak egiten José *aibazazu* (?)  
 Aurra zaude isillik berotuko zaitu.

10.

Ama maitia dago guztiz penaturik,  
 Manuelcho lastotan otzak ekusirik,  
 Ez derilla penatu Birjiña Maria,  
 Berotzen ari dira asto ta idia.

11.

¿Nor triste egongo da gaurko arratsean,  
 Zarrik eta gaztiak alegragaitian,  
 Ia Belengo arzayak umore onian  
 Salto ta brinko<sup>1</sup> Jesusen aurrian.

12.

Arzai zarrena naiz eta ditut laroiei urte kontatzen, (?)  
 Ariña nago, brinka dezaket, kanta berria kantatzen,  
 Esku batian chapela dakart, bestian nere makilla,  
 Lurrari dantzan ekutu bage ariña nator mutilla.

---

(1) Falta indudablemente el verbo *dabiltz*.

## 13.

Salto ta brinko, brinko ta salto  
 Agure jauna egizu,  
 Orren ariña zauden ezkero  
 Iñork bentaja (?) ez dizu.

## 14.

Ordia dago, Agure ori,  
 Batzuek dabe esango,  
 Amoriuak orditzen banau  
 Ez da gezurra *esango*.<sup>1</sup>

## JESUS, REDEMPTOR OMNIUM &amp;.

ELES-KANTA.

*B.º R.º In Nativitate Domini.*

Kitupetzalle guzion Jesus,  
 Lorian aitzaz bardiña,  
 Aita goikoak argia baño  
 Lénago argitu zinduna,  
 Aiten argi ta argi-bolada,  
 Betiko danon ustea,  
 Entzunzu, arren, munduko zeure  
 Mendepekuen eskea.  
 Donzella amaren sabel garbiti,  
 Urtenda zenbala artu  
 Geurian lezko gorputz-oi zaite,  
 Gauzen egille gomuntú.  
 Inguruturik, gaurko egunak  
 Urte guztiko bidea,

Aiten kolkoko, zala dirauzku,  
 Munduko osasun bakarra.  
 Izar ta lurruk, ichaso laubak,  
 Zerupetako guztiak,  
 Osasun barri ekarle zaude,  
 Kantaz kantetan dan-danak.  
 Odol-ur-dontsu zorionkoak  
 Gaitu nok bere garbitu  
 Gaur, zeure egun onetan, zuri  
 Eiten kanta au deutzugu.  
 Jesus, zuretzat gorantzak beti,  
 Donzellaiaren semia,  
 Aitagaz beti, bedeinka dilla,  
 Me-ego-pe dontsau maitia,

N-Odneko. 1883.<sup>ko</sup> Abenduaren 23.<sup>en</sup>

## ALPARKADUNAK.

(1) Probablemente *izango*.